



4. Irabazi iturriak

Lokalen kokapena eta ordainketa

Gure supermerkatua Espainiako herrietan jartzeko inbertsio handia egin behar dugu aldez aurretik. Horregatik, **Euskal Herriko**, **Burgoseko** eta **Kantabriako** hainbat herritan jartzea erabaki dugu, hori baita gertuen dagoena, eta pixkanaka **Espainia osora hedatzen** joatea.

Errentagarritasun handiena lortzeko asmoz, establezimendua **edukiontziak** izango dira (itsasokoak). Edukiontzi horiek lekuz alda daitezke, eta dagoeneko erabili badira ere, eraberritzen dira eta supermerkatu batera egokitzen dira. Bakoitzak 2 500€ inguruko prezioa dute. Edukiontziak ez dira oso handiak, baina bat baino gehiago elkartu daitezke. Hori ideia ona da kostuetan aurreztu ahal izateko. Gainera, **ekonomia zirkularrari** laguntzeko eta gure negozioak ingurumena errespetatzen dezan lortzeko modu bat dela uste dugu.



Herriari zerbitzuak ematen ari garenez, **udalekin akordio** batera iritsiko **gara lurraren prezioa oso merkea** izan dadin.



Enpresa berritzailea izateagatik diru laguntzak

Estatuak edo autonomia-erkidegoak enpresa berritzailea izateagatik diru-kopuru bat ematea finantzazioa lortzeko aukera aztertu dugu. Gure proiektua gauzatzeko eska ditzakegun laguntza ekonomiko guztiak eskatuko ditugu.

Dirulaguntzak:

Autonomia erkidegoetako ekintzaileentzako laguntzak

Autonomia erkidego bakoitzak enpresak sortu nahi dituzten ekintzaileentzako laguntzak eta dirulaguntzak eskaintzen ditu. Oro har, inbertsioaren % 15 eta % 40 arteko laguntzak dira enpresa berritzaileentzat.

Enpresa Berritzailea

ETEentzako dirulaguntza hauek zuzenean autonomia erkidegoen menpe daude, nahiz eta orokorrean inbertsio osoaren % 15 eta % 60 artean finantzatu ohi duten. Enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratuta daude, I+G+b prozesuen bidez, banku-finantzaketan interes-tasen hobariaren bidez eta abalak eskuratuz.

Enisa Laguntza Gazte Ekintzaileentzat

Enisa enpresa publiko bat da, Espainiako ETEen enpresa-proiektu berritzaileak finantzatzen dituena. Eskaintzen dituen finantzaketa-lerroen artean gazteek sortutako enpresa txiki eta ertainei (eta startup) zuzendua dago, enpresa-proiektuak hasierako fasean behar dituen inbertsioei aurre egin ahal izateko.

Kobroak

Banakakoak:

Bezeroek ordainduko dute eramaten dituzten produktuengatik. Kutxazainetan langilerik egongo ez denez, **autopagoa** izango da ordaintzeko modua, eta **txartelarekin** edo **diru fisikoarekin** ordaintzeko aukera egongo da. Diru fisikoarekin ordaintzean, dirua ordainketa-makinan sartzen da. Txartelarekin



ordaintzeko, berriz, txartel bidezko beste edozein ordainketatan egiten den modu berean ordaintzen da.

Errepikakorrak

Herriko eta inguruko herrietako bezeroek **bazkide-txartela** izango dute, eta txartel horretan **deskontuak** eta beste motatako **abaintailak** izango dituzte.

Prezioak

Prezioak ezartzeko kontuan hartuko ditugu hainbat puntu:

-  **Merkatua eta prezioak aztertuko** ditugu: Garrantzitsua da lehia eta prezioak ezagutzea, bezeroei preziorik onenak eskaintzeko. Haatik, kontutan izango dugu beraien herrietan gaudela eta ez dutela beste merkataritza zentroetara jo behar, honek daukan diru aurreztearekin.
-  **Produktuaren kalitatea:** prezioak produktuaren kalitatea islatu behar du. Kalitate handieneko produktuek prezio handiagoa dute. (Eskainiko dugun tokian tokiko produktuak)